

DURANGOKO 42. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Sinadura bat baino gehiago

Liburu edo disko ale baten balioa handiagoa al da barruan egilearen eskaintza badu? Erosle gehienak baieztokan daude, eta egile gehienak ere harreman hori lantzearen aldeko dira.

XABIER MARTIN
Durango

Azokako korridoreetako batean aurrera eginda, erakusmahai gehienetan jende jario berdin-tua ikusten zen atzo arratsaldean. Halako batean, baina, mahai baten parean ilara txiki bat sortu zen. Han eskaintzen zuten liburu ezagun baten egilea zen bertan, erositako aleetan eskaintzak idazten, erosleekin unetxo bat partekatzen. Eroslearen eta egilearen arteko harreman labor horrek badu garrantzia. Halaxe uste dute erosleek, eta egileak ere harreman hori lantzearen aldeko dira, oro har.

«Azokara etorri nintzen lehen urteetan izan nituen une politenak alor horretan», esan zuen atzo Harkaitz Canok Susaren salmahaian. «Orduan ez nintzen oso ezagun, eta jendea beharbada ez zen ohar-tzen aurrean zegoena esku artean zuten liburuaren idazlea zela». Horrek ahalbidetu zion eroslegaien iritziak bertatik bertara ezagutzea. «Horrek badu bere xarma». Fetitxismo ukituak laguntzen du, Canoren ustez. «Nik ere badut ukitu hori; esaterako, Paul Austerrekin. Haren eskaintza badut, liburu horrek estimazio berezia dauka niretzat».

Egilearekin hitz egin ahal izateko, labor bada ere, lagungarria da



Karmele Jaiok. *Zu bezain ahu/liburua sinatu zien bere irakurleei.* JUANAN RUIZ / ARGIAZKI PRESS

liburu bat sal dadin. «Sailekoa dena berezi bihurtzen du».

Bitxikeriarik ere badu Canok sinatzeko uneak oroitzen hasita. «Dedikatorioa diktatu didanik bada, hitzez hitz, eta mezulari lanak ere egin izan ditut: 'mesedez, jar ezazu Xabierren partetik Onintza-rentzat dela' eta tankerakoekin».

JUNEREN ALTXORRA. Joseba eta June aita-alabak Pentxo Campanak ilustratutako komiki bat erosi ondoren pozik zeuden. June gaztetxoak irmo heltzen zion altxor eskuratu berriari. Izan ere, Campanak es-

“Saileko alea dena ale berezi bihurtzen du eskaintzak”, Harkaitz Cano idazlearen ustez

kaintza dotorea egin zion liburuan, ilustrazio handi bat tartean. «Oso atsegina izan da, ez da Corte Ingleseko sinaduren antzekoa izan. Lasai izan gara hizketan, gertutasunez», esan zuen aitak.

Elkarren gunean, berriz, Jon Arretxe eta Karmele Jaiok luma bizi-bizi mugitzen zuten. *Zu bezain ahu*-en ale bat eskaini ondoren, «ekintza aberasgarria» dela esan zuen Jaiok. «Aurreko libururen bat irakurri dutela esaten didate gehienek, eta berria erostera etorri direla». Alea eskuratu zuen gaztea pozik zihoan bere erosketare-

Liburuarekin lotura duen zerbait idazten saiatzen da Karmele Jaiok bere eskaintzetan

kin. «Unean sortzen dena» idazten die Jaiok, «ahuldadearekin lotutako zerbait sarritan».

Pako Aristi ere erosleekin zen hizketan Ereinen mahaian. «Bat-zuk zu ezagutzera etortzen dira, baina beste batzuk zu ikustean ihesean doaz», esan zuen irribarre txiki batekin. «Lotsa» ere ematen dio Aristiri bere liburuaren begiratzeko. «Gertatu izan zait salmahaian bertan egotea gutxiago saltzea ere». Baina, oro har, «gustukoa» du irakurleekin aritzea.

Txalapartako erakusmahaiaren ere ez zuten lan gutxi idazleek eskaintzak idazten. Xabier Silveira, Edorta Jimenezek eta Joxean Agirrek ale anitz eskaini zituzten. «Nire lehen azoka eta nire lehen liburu hau da hau, eta harreman txo honek balio dit jakiteko zein izan daitekeen nire irakurle subjektua», esan zuen Agirrek, *Cipayos?* obraren egileak. «Jende asko etorri zait kartzelan duen senitartekoari oparitzeko asmoarekin. Gainera, ohartu naiz adin guztietako irakurleak izan ditza-keela liburuak». Bere obraren «kontzeptzio afektiboa» deskribatu du Agirrek irakurleekin egoteko aukerari esker.

Zestoatik etorritako gazte bat da irakurle horietako bat. Eskaintza lortu ondoren, gustura urrundu zen beste guneetara. «Ez nuen ezagutzen Agirre, eta asko gustatu zait harekin egotea. Orain balio handiagoa du niretzat». Zenbat eta idazle ezagunagoa izan, eskaintzak orduan eta balio handiagoa duela uste du zestoarrak. «Haiekin egotea ondo dago, galdetzeko eta zure iritzia emateko. Hurbiltasun horrek balio du zerbait».

«Diskriminazio positiboa» eskatu dute emakumeen lanen alde

JUAN LUIS ZABALA
Durango

Durangoko Azokaren aurtengo ekitaldian aurkeztu diren produktu berrien %22 dira emakumeek sortuak, Bilgune Feministak egin duen azterketaren arabera. «Berdintasun planen garai honetan lotsagarria da emakumearen presentzia hain urria izatea Euskal Herriko ekimen kultural garrantzitsuetan», Bilgune Feministaren iritziz. «Berdintasunaren geuzurrezko diskurtsoaren menpe bizi gara egun Euskal Herrian. Egund, liburuetan edota aldizkarietan gehien agertzen diren ekarpenak gizonezkoenak dira oraindik. Horrek ez du zerikusirik emakumeen gaitasun edo formazio faltarekin, lanaren balorazio ezberdinarekin baizik».

Egungo egoera aldatzeko, «diskriminazio positiboko neurriak» behar direla aldarrikatu du Bilgune Feministak, «esparru publikoan emakumeen absentsia zuzentzen saiatzera bideratzen direnak». Horregatik, editorialei, disketxei eta Gerediagari elkarte-ari «emakumeen ekolizpenak azpimarratzea eta jarduerak parekide bat garatzeko ekimenak prestatu eta garatzea» proposatu die; irakurleei, berriz, «emakumeen lanak irakurtzeko gonbita» egin die.

‘AGENDA FEMINISTA’, PLAZAN. Datu eta gogoeta horiekin batera, *Euskal Herriko Agenda Feminista 2008* aurkeztu du Bilgune Feministak Durangoko Azokan, emakume bertsolariei eskainia. Matxalen Zabalauregi, Oihane Perea, Iratxe Ibarra, Kristiñe Txoperena, Nerea Elustondo, Uxue Alberdi, Alazne Untxalo, Arrate Illaro, Miren Artetxe, Erika Lagoma eta Izar Mendiguren bertsolariek hartu dute parte agendan.

Agendaren xedeetako bat emakume bertsolarien lana ezagutaraztea da. Horrekin batera, Bilgune Feministak «balio feministetan oinarritutako euskal kultura sortu, garatu eta transmititzeko aldarria» egin nahi du.

«Kontrakoa pentsatu izan bada ere, emakumeak beti egon dira bertsolaritzari lotuak», adierazi du Bilgune Feministak. «Bertsolaritzaren erroetan XV. mendeko dama inprobisatzaileak omen daude. Juan Mari Lekuonak zioenez, lotura hori handia izan da. Bertsolaritza emakumeen bidez gorde, gozatu eta transmititu da baserrietan. XX. mendearen hasieran jaitakoto bertsolariek aipatzen zuten emakumeak bertso kantari aritzen zirela etxeko lanak egin bitartean».

KOMIKIAK Durangoko azokan elkar liburuaren txokoa

De Rerum Natura²

elkar | www.elkar-argitaletxea.com

Zaldi Eroa